

◦ Cesar Arrondo ◦

«Euskal aldarrikapenen gotorlekua izan behar du diasporak»

César Arrondoren aitona Antzuolatik Amerikarako bidea egin zuen XIX. mendean; egun, La Platako Unibertsitateko (Argentina) Historia irakaslea da Arrondo. Bere esanetan, euskal diaspora ezezaguna da Euskal Herrian bizi direnentzat: postal zaharkitua, euskal arazoetatik at dagoena. Ez dela hala aldarrikatu du Arrondok.

ALVARO HILARIO
PÉREZ DE SAN ROMÁN

Zelan ulertu behar dugu Argentinako diaspora? Diaspora bi bereizten ditut nik. Alde batek, 90 bat euskal etxe batzen dituen Argentinako Euskal Gizataldeen Federazioarena (FEVA), 30.000 bazkide dituena; ofiziala esaten diot nik. Badira, bestaldetik, Argentinan euskal abizena duten 3.000.000 biztanle: hauek beste diaspora osatzen dute, lantzeke duguna. Euskal etxeen artean denetarik dugu: handiak, ohikoak (Buenos Aireseko Laurak Bat, Rosario, Mar del Plata, Necochea, Bahía Blanca, Recife) eta azken hogeitaz jaiotakoak (barnealdean, gehien bat), txikiagoak. Euskal etxe gehienak Buenos Aireseko probintzian daude. Probintziak 136 udalerrri dituela eta guztietan jatorrizko euskaldunak daudela kontuan izanik, herri bakoitzean euskal etxe bana egotea posiblea litzateke. Eusko Jaur-laritzaren ustetan, ekonomikoki ezinezkoa da hori, baita egun daudenei eustea ere. Ni ez nator bat kalkulu ekonomiko horrekin, nahiago dut geopolitikaz mintzatu: euskal presentzia indartzea etorkizunerako inbertsioa da; hau da, presentzia hori baliatu beharko genuke euskal diaspora gure aldarrikapenen gotorleku berria izan dadin.



Oztopoak nondik datoz?

Euskal etxe gehienek jatorri politikoa badute ere –foruzaleek edota abertzaleek sortuak dira–, egungo diaspora euskal proiektutik urrun dago eta zenbait kasutan ahaztuta du euskaldunok Espainiarekin eta Frantziarekin dugun gatazka. Diasporak parte hartzeko interes gutxi du; ez da eztabaida politikoa sorrarazteko tresneriarik, ezta borondate politikorik ere. Gehiagotan begiratu beharko genioke irlandarren edota armeniarren diasporak haien estatu propioak izateko egindako ahaleginari.

Trebatua zara Euskal Herriko egungo egoera ezagutarazten. Zelan hasi zinen zeregin horietan?


Buenos Airesetik gertu bizi naizenez gero, FEVAn parte hartzen hasi nintzen Lapridako Euskal Etxeko delegatu moduan. Birritan izan nintzen FEVAko presidenteordea. Horrek hemengo diaspora osoa ezagutzeko aukera eman zidan: Historia irakasle izanik, hitzaldiak ematera gonbidatzen ninduten; horrela 70 euskal etxe ezagutu ditut. Federazioan nituen administrazio lanak eta ardurak alde batera utzita, euskal gaia ikertzen hasi nintzen. Harrezkeroztik, ez da egoera politikoa jorratzen ez dudan mintzaldirik, testuinguru historikoa ahaztu gabe. Egun, euskal gizataldearentzako iritzi artikulua idazten ditut, *Deian* edota *Garan* ere agertzen direnak; diasporak izan beharko lukeen rola nabarmentzen dut.

La Platako Unibertsitatean Historia irakaslea zara. Euskal gaiei lotutako ekitaldiak badauzkazue han, ezta?

Unibertsitatea eztabaida eremua dugu; euskal etxeek ez bezala, politika baztertzen ez duena. Hala, jatorri euskalduneko 30 bat ikaslez osatutako taldea bultzatu genuen, eta Euskal Herriko kultura eta historia zabaltzeko ikastaroak antolatzen ditugu. Jorratzen diren kontzeptuak oinarritzkoak edo xumeak badira ere (aberria, estatua, hizkuntza, kultura, geografia, gatazkaren iturriak...), ezezagunak dira euskal kolektibitatearen baitan. Agian, esperientzia Buenos Aireseko Unibertsitateara zabalduko dugu. Orain, Nazioarteko Ikasketak sailean, Irlanda eta Euskal Herria abiapuntu, nazionalismoa eta migrazioa ikertzeko departamentua eratu nahi dugu.

Historia aldizkari bat ere kaleratzen duzue: *Guregandik*.

Lapridako Euskal Etxeko Arturo Campion Ikasketa Taldearen aldizkaria da. Lau urte ditu aldizkariak eta bost urte taldeak. Azken zenbakirako, EHUko, Deustuko eta Renoko unibertsitateetako ikertzaileen parte-hartzea sendotu dugu. Aldizkaria bera eskura dago Eusko Ikaskuntzan, Antso Jakituna Fundazioan eta Euskal Herriko unibertsitateetan. Hemengo euskal ikertzaileek euren lanak argitaratzeko tokia izan dezaten nahi dugu, baita munduan zehar diren beste historialariek duten harremana sendotu dadila ere. Aldizkaria eta historiako hitzaldiak dira Euskal Herria ezagutarazteko ditugun baliabide bakarrak.



Guregandik aldizkariaren bi azal.

"Ameriketako Nazio Eztabaidagunearen bitartez, diasporako euskaldunok gatazkaren parte garela eta balizko irtenbidearen parte izan gaitezkeela adierazi nahi dugu"

Duela gutxi, Eusko Jaurlaritzak emandako makina-erremintak banatu dituzte Argentina-ko zenbait Lanbide Heziketa (LH) institututan.

Eusko Jaurlaritzako Tontxu Camposekin eta Iñaki Mujikarekin Argentinako LHren egoeraz mintzatu ginen eta horren ondorioz jaio zen Euskal Autonomia Erkidegoko LH zentroetatik erretiratutako hainbat makina Argentinara ekartzeko aukera. Kontuan izan

behar dugu Argentinan euskaldunok *lobbyrik* ez dugula eta Euskal Herriarekiko begikotasuna superatzeko edozein bide ona izan daitekeela. Herrietako hedabideak ere hurbiltzen zaizkigula, badugu euskal gatazkaren gaineko zehaztapenak egitea. Euskal Herriaren alde lan egingo lukeen *lobby* eratzeko erabili beharko genuke hau guztia.

Martxan dago Ameriketako Nazio Eztabaidagunea.

Esperientzia berria dugu hau ere. Bost izan ginen proiektua martxan jarri genuenok, sentsibilitate politiko guztietakoak. Hain deigarria izan zen alderdi ezberdinekook testu bateratua kaleratzea, Euskadi Irratiak elkarrikereta bana egin baitzigun. Azpimarratu nahi ditut prozesu honetan Mariana Fernándezen izaera irekia eta lana. Ekitaldi publiko bi egin ditugu, Argentinan biak. Espero dugu hurrengo Uruguain egitea. Eztabaidagunea ahalik eta zabalena izatea nahi dugu, eta Euskal Herriko egoera politikoaz nahi dugu, gaitzezela, egoera bera ezaguna izan dadila diasporaren baitan. Ekimen honen bitartez, diasporako euskaldunok gatazkaren parte garela eta balizko irtenbidearen parte izan gitezkeela adierazi nahi dugu. ■